

GORPUTZ MARRAZKETA

Jarduera

Ereduak erabiliz giza iruditik irudi naturalera marrazten ikastera bideratutako ikastaroa.

Deskribapena

Marrazten ikasi nahi dutenei zuzendutako ikastaroa. Forma, konposizioa, kolorea eta konfigurazio elementuak modu praktikoan egingo ditugu, erreferentzia gisa giza gorputza hartuta.

Helburuak

- Giza irudiaren proportzioak ezagutu, aztertu eta interpretatzea.
- Ikaslearen irudimen-gaitasuna eta diziplina garatzea.
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.
- Herritarren kultur kezkak asetzea.

Programa

1. Hiruhilekoa.

- Giza irudia marrazten hasteko ariketak: hezurak, muskuluak eta tendoiak kokatzea, hori guztia funtsezkoa da gorputza egituratzeko orduan.
- Irudia gure formatuan nola egokitzen den ikastea: nola neurtzen eta alderatzen ditugun proportzioak eta nola eramaten dugun gure euskarria.
- Materiala: material desberdinek eskaintzen dizkiguten aukerak aztertuko ditugu, hala nola grafitoa, ikatz-ziria euskarri desberdinak.

2. Hiruhilekoa

- Marrazteko baliabideak: espazio negatiboak, irudizko lerroak, bertikala eta horizontala marrazketako baliabide gisa
- Estatua eta eredu naturaleko ariketak
- Giza gorputzeko apunteak: hainbat apunte hartuko ditugu, landu nahi dugunaren arabera: mugimendua, bizkortasuna, etab.

3. Hiruhilekoa

- Proposamen pertsonalak: oinarrizko nozioak ikasi eta praktikatu ondoren, ikasleak banakako proiektu bat egin ahal izango du irakaslearen laguntzarekin.

Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea.

Nori zuzendua

Helduak.

Ikasleak eraman beharreko materiala

Teknika hezeen koadernoa, teknika lehorren koadernoa.
Grafitozko arkatzak (H, B, 2B), ikatz-ziria...
Zorrozkailuak eta goma.
Tinta Txina eta pintzel sintetikoak.
Trapuak eta ur botila bat.